

Balorezko proposamena:

Guk aukeratutako enpresa Journey Way deitutako **bidaietan oinarritutako enpresa da**; Atzerrira eramaten zaituzten hainbat enpresa badaude jada, baina gu herrialde horretara heltzean egitekoaz arduratzen gara modu eraginkor, azkar eta eroso batean, Interneteko orrialdetik edo gure mugikorreko aplikaziotik: Nora joango zaren, igaroko dituzun egunak, zein motatako ekintzak egin nahi dituzun, non lo egingo duzun eta baldintza batzuen barruan egon behar den esan eta automatikoki gure programak ekintza alternatibo batzuk proposatu eta antolatuko dizkizu esandako egunen arabera.

Izan ere, ekintza alternatiboak antolatzeak beste enpresengandik ezberdintzen gaitu eta ez leku turistikoetan egiten diren ekintza tradizionalak, ikuspuntu dibertigarri eta interaktiboagoekin. Gainera, esan bezala, hauek antolatzen ditugu eguneroko denboran kontuan hartuz bezeroaren beharrak edo baldintza pertsonalak, eta leku hauetara heltzeko baliabideak eskaintzen ditugu, hala nola, trenak, autobusak, metroa etab.

Hau da, aspektu guztiak antolatzen ditugu, bai ekintzak burutzeko baliabideak, bai ekintzak, bai jateko lekuak eta lo egiteko; denbora, beharrak, baldintzak eta lekuen arteko distantziak aintzat hartuta.